**ORDIZIA** ▸ GIZARTEA

# Udala: «Herriak ez badu nahi Oianguko proiektua, obligazioa izango dugu hau gelditzeko»

Erreferenduma eskatu dute herritarrek Oianguko egitasmoaren inguruan; bi orduz luzatu zen gaiari buruzko eztabaida plenoan, herenegun



Manolo Iturrioz eta Jose Miguel Santamaria EAJko zinegotziak eta Alejandra Iturrioz Ordiziako alkatea herenegungo plenoan. MAIDER DEL OLMO

**MAIDER DEL OLMO**

Oianguko egitasmoaz herriari kontsulta egiteko eskatu zuten plenoan herenegun ordiziarrek. Erreferenduma eskatu zuten herritarrek. Eta galdeketa eginda emaitza onartuko zuten ala ez galdetu zieten agintariei. Manolo Iturrioz zinegotziak plenoan esan zuenez, «herriak ez badu nahi Oianguko proiektua, obligazioa izango dugu hau gelditzeko».

Udalak ez zuen esan, hala ere, erreferenduma egingo denik: «Mutur horretara iritsi behar izan gabe» auzia konpontzea espero dute. Herritar batek hitza hartuz erantzun zuen: «Kontsultatua izatea oinarrizko eskubide bat da, ez muturreko jokabidea».

Udalak esan du herenegungo plenoan egindako eskaerak «kontuan hartuko» dituztela. Era berean, Oiangu Bizirik plataformari bi ordezkari izendatzeko eskatu dio, eta haiekin bilduko direla ziurtatu du.

Alejandra Iturrioz alkatearen hitzetan, «Ordiziarentzat onuragarria dela pentsatuz bultzatu dugu proiektua. Baina ikusten dugu herritar talde bat ez dagoela ados egitasmoarekin». Gehitu zuenez, «oso argi dugu zer egin nahi dugun. Prest gaude legalitate guztiaren barruan, beraz, ekarpenak jasotzeko». Alkatearen ustez, ordea, «ez da zilegi proiektuaren legezkotasuna zalantzan jartzea». Oianguko egitasmoa «begi onez» ikusten dutela, eta herriari onurak ekarriko dizkiola berretsi zuen.

### Nahasmena

Herenegun plenora joandakoen artean nahasmena ere sortu zen, proiektuaren alderdi batzuk aztertzen hasi zirenean. Herritarrek uste dute «informazio faltagatik» dela. Eta nahasmena hortik datorrela. Manolo Iturrioz zinegotziak «informazio eza» horri buruz esan zuen, jendeak proiektu horren berri ez dakiela «Udaleko beste hainbat gaiei buruz ez dakien bezala».

Iturriozek Oiangu Bizirik plataformari «gezurretan» aritzea ere leporatu zion: «Patata tortila bat jateko Oiangun aurrerantzean 20 euro ordaindu beharko direla esaten ari zarete». Plataformakoek haserre erantzun zioten, hori ez dela horrela esanez, eta «gaiztakeriaz» jokatzea egotzi zioten Manolo Iturriozi.

Galdera-erantzunen txandan, bestalde, herritarrek Udalari galdetu zioten ea nola bermatu behar duen herritarren parte-hartzea proiektua garatzerako orduan.

## Oiangu hesitu egingo al duten galdetu dute herritarrek

Obren hasieraz ere luze hitz egin zuten plenoan. Hainbat komunikabidetatik jasotako informazioa aipatuz, herritarrek galdetu zuten ea egia den apirilean hasiko dituztela obrak. «Lanak hasi eta ingurua hesitu egingo dutela jakin du jendeak», eta alkateari hori horrela den galdetu zioten. Hala izango balitz, Udalari gogoratu zioten, araudian jasotzen den bezala, aurrez ingurumeneko inpaktua aztertzeko ikerketa egin behar dela derrigorrez, eta egin gabe dagoela oraindik.

Indarrean dagoen araudiak Plan Berezia deitua jasotzen du. Haren arabera, «plana landu eta onartu bitartean soilik nekazaritzarekin eta basogintzarekin lotutako jardunak baimendu ahalko dira eremu horretan». Plan horretan azaldu egin beharko da, gainera, zer erabilpen emango zaion lursailari. Bestalde, ingurumen inpaktuari buruzko ikerketa egin behar dela ere badio planak.

Plan hori egiteko ardura kontzesioa jaso duen enpresa pribatuak berak du. Horren inguruan desadostasuna agertu du Oiangu Bizirik plataformak, Udalaren egitekoa dela uste baitute: «Udalari dagokio interes publikoaren alde egitea, tekniko eta profesional inpartzialei agindu behar die plana egitea».

Oiangu Bizirik taldeko kideek kezka agertu dute, eta Udalak proiektuan zein neurritan esku hartu ahal izango duen galdetu zuten: «Zein baldintza jarriko dizkie Udalak plan hori egin behar dutenei? Ez dugu ulertzen zergatik izan behar duen enpresak plan hori egin behar duena, eta ez Udala bera hortaz arduratuko dena», galdetu zuten.



Ingurumen inpaktua aztertu behar da, derrigor, obrak hasi aurretik.

Alkateak jakinarazi duenez, «nahikoa aurreratua» dago Plan Berezia deitua. Legezko prozedimenduari jarraituz, Gipuzkoako Aldundiak onetsi beharko du, gero. ◂

# Mila bizilagunen babesarekin

Oiangu Bizirik plataformak egitasmoa bertan behera uzteko eskatu dio Udalari



Oiangu Bizirik-eko ordezkariak hitza hartu zuen unean. MAIDER DEL OLMO

**M. DEL OLMO**

Oianguko egitasmoaren kontra 1.000 herritarren sinadurak bildu ditu asteburuan plataformak. Sinadura horiek denak eskuan zituztela jo zuten, herenegun, Ordiziako plenora. Udalbatzak azken bilkurako akta bozkatu aurretik hitza hartu zuen Oiangu Bizirik taldeko ordezkari batek. Egitasmoa bertan behera uztea eskatu zuen. Era berean, agintariei proiektuaren inguruko galdera zehatzak luzatu zizkien. Plenoaren amaieran, ordea, bi orduko eztabaida luzearen ondoren, Oiangu Bizirik-ek azaldu zuenez, ez zaie euren galderei «era garbi batean» erantzun. Plataformako hainbat kidek *Oiangu Bizirik* zioten kartelak eutsi zituzten eskuan Osoko Bilkurak iraun zuen bitartean. Jendez goraino bete zen udal aretoa.

Plataformak bere sorreraren zergatia agertu zuen jendaurrean. Taldea zein helburuerekin jaio den azaldu zuten. Oianguren «izaera publikoa defendatzea» dela asmoa nabarmendu zuten. Herrian gaiari buruz eztabaida piztea beharrezkoa ikusten dute. «Era berean, aurrera eramango den proiektua edozein izanda ere herritarrek parte hartu behar dute erabakitzerako orduan» gehitu dute.

Egitasmoaren inguruan zalantza asko ditu Oiangu Bizirik plataformak. Esaterako, «ez dakigu nola bermatuko den parkerako sarrera librea. Ez dakigu eraikuntza obrek zein eragin izango duten Oianguren oreka ekologikoan. Eta jakin ere ez dakigu zenbat ur beharko den eremu hori guztia hornitzeko eta ur hori nondik aterako duten». Plataformak salatu zuen Udalak herritarrei informaziorik eman gabe onartu duela proiektua. Eta ez dela bidezkoa.

Oiangu Bizirik-en hitzetan, «gure kezka da ea proiektu hau Oiangurentzat egokia den. Eta ezetz uste dugu».

### Proiektuaren berrazterketa

Euren iritziz «nahikoa arrazoi» daude Oianguko egitasmoa geldiarazteko eta lasai berrazterteko. Arrazoi horietako batzuk izaera juridikoa dute. Baina nahiago izan zuten oraingoz eztabaida horretan ez sartu, eta parkearen izaera publikoa defenditu dute: «Gure ustez birplanteatu egin behar da proiektua. Eta horretarako gelditu egin behar da egitasmoa. Borondatea baldin baduzue egin dezakezue». Inolako obrarik ez hasteko eskatu zuen plataformak.

Hala zuzendu zitzaien aretoan zeuden agintariei eta zinegotziei: «Inoiz ez da berandu zuzentzeko, hala parkearen etorkizunaren inguruan denok adostasun batera iristen bagara». gehitu zuten plataformako kideek.



## Bizikidetzarako EBren hiru pausoak

**BEASAIN** ▸ Herenegun kalean aurkeztu zuen Beasaingo Ezker Batuak *Bizikidetzarako hiru pausoak; Bide federala* egitasmoa. Beasaingo azokaren parean stand bat jarri, eta herritarrei euren proiektua azaltzen duen kutxa moduko bat banatu zien. Ezker Batukoen ustetan, hiru pauso eman behar dira. Lehena, adostu ahal izateko elkarrizketa. Bigarrena, erabaki ahal izateko galdeketa. Eta hirugarrena, bizikidetzarako federalismoa. A. APALATEGI




## Presoen borrokarekiko elkartasuna

**BEASAIN** ▸ LAB sindikatuak bat egin nahi izan du Euskal Preso Politikoen Kolektiboa egiten ari den protestaldiarekin. Urtarrilean hasi zuten txandakako itxialdiarekin, kolektiboaren izaera politikoa eta dagozkien eskubideak aldarrikatu nahi dituzte. Horiekiko elkartasuna erakusteko, LABek elkarretaratze ugari deitu ditu. Astearte goizetan Beasainen biltzen dira; asteazkenetan, berriz, Ordizian federalismoa. A. APALATEGI